

Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

## Murrizketak baita I+Gn ere

**I**kerketa generiko deitzen den horretatik gutxitan atera ohi da berehalako emaitzarik. Ondorioak, izatekotan, teknologia mailan nabaritzen dira nagusiki, eta herrialde aurreratuenen esku izaten dira, horietan egiten baita ikerketa generiko ahalmentsuena. Ikerketa aplikatuaren oinarria da. Hau da, produktuetatik hurbilago dagoen ikerketaren funtsa da eta herri aurreratuenetako politikariek euren herrientzat duten amets teknologikoen isla izaten da.

Euskal Herrian bultzada handia izan du ikerketa generikoak, eta kopurutan, Espainian ez bezala, Europako batez bestekotik hurbil dagoela esan daiteke.

Baina ikerketa generiko horrek kontuan hartu al ditu inoiz Euskal Herriko interesak? Aintzat hartu al dira, adibidez, zaborren kudeaketa efiziente eta bateratua; edo herrien energia autosufizientzia; edo errepide, aireportu nahiz itsasportuen kudeaketa globala, beti ere garraioa optimizatzeko eta txikizioak saihesteko helburuz; edo euskararen eta teknologia-aren arteko zubiak zer onura izango lukeen nazioartean; edo gure memoria historiko-kulturala hedamodu berrietara ekartzeak zer teknologia garatuko lukeen...



DANI BLANCO

Ez. Nire ustez, ez. Ikerketa globalizatua dago. Eta horren aitzakian globalizazioan agintzen dutenek ezartzen dituzte ikerketaren helburuak, lerro nagusiak. Ondorioz, Euskal Herriko gobernuetako administrazioen helburu globalen administrazio-lanak besterik ez dituzte egiten. Estatu-multzotako multinazional zehatzen helburuak administrazioen dituzte hain justu.

2012rako, administrazio publikoen aurrekontuak behera doaz, gutxiago edo gehiago, eta oraindik behin betiko erabakia hartu ez bada ere, Eusko Jaurlaritzako Industria Saitetik atera diren zurrumurruen arabera, enpresentzako diru-laguntzak ahalik eta gehien mantentzea da borondatea, eta ikerketa generikoari, berriz, errotik mozuko zaio laguntza.

Gure beharrak eta ametsak kontuan hartu ez dituen ikerketa-politikak bost inporta zaizkit, eta beraz, abiapuntu horretarako arrazoi desberdinak izango baditugu ere, bat nator Eusko Jaurlaritzak hartu asmo duen erabakiarekin.

Hel diezaigun behingoz lekuan lekuko lurrak, pertsonak eta kulturak lagunduko dituzten irizpidei, eta ihes egin dezagun globalizazioaren moztarpean ezkatzen diren botere ekonomikoek ezartzen dituzten politiketatik. ■



Gure beharrak eta ametsak kontuan hartu ez dituen ikerketa-politikak bost inporta zaizkit, eta beraz, abiapuntu horretarako arrazoi desberdinak izango baditugu ere, bat nator Eusko Jaurlaritzak hartu asmo duen erabakiarekin

TXANDAN

Castillo Suarez



Egunero irakurtzen ditugu genero indarkeriaren adibideak prentsan. Maiz begiratu ere ez ditugu egiten, baina nago berri horiei erreparatzen diegunean, beti dugula emakume mota jakin bat buruan: heldua edo adindua, oinarrizko ikasketekin, atzerritarra, bikotearen menpekota ekonomikoki... Horregatik agian ez zaigu burutik pasatzen ere egun nerabeak diren horiek tratatu txarrak jasango dituztenik urte batzuen buruan.

Haatik, bortizkeria ez da bakarrik labankada, zartakoa edo heriotza; ez da bakarrik helduen kontua.

## Indarkeriaren haziak

Izan ere, nahi baino gehiago dira nola-baiteko tratatu txarra onartzen duten neskek gaur egun. Badira mutil gazteak neskalagunak beren ingurutik isolatzen

dituztenak eta kontrolatzen dietenak zein arropa mota jartzen duten, nola makilatzen diren, zein zale-tasun dituzten, norekin ibiltzen diren eta sakelakora deitzen dituzte etengabe zertan ari diren jakiteko. Jazarpen hori sotilagoa da batzuetan eta nabarmenagoa bestetan. Batzuentzat maitasun frogak omen dira, baina indarkeriaren hazia dira egiazki, eta, beraz, oso kontuan hartu beharrekoak. ■

